

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Dominika Elorza Heriz

*Arrasate
Gipuzkoa (1924)*

Aurkibidea



Biografia



Meatzerreka auzoko Etxaldebarri baserrian jaio zen 1924an. Ama zen Etxaldebarrikoa eta aita Eskoriatzako Mendiola elizateko Elizakoa baserrikoa. Lau anai-arreba ziren. Mikelete etxeko eskolan hasi zen zortzi urterekin. Hemen urte pare bat egin eta gero, San Viatorren urte bat eta Biteri-n beste bat egin zituen. Debatean jaio eta Meatzerrekan hazitako Bixente Langaranekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten. Gasteizen neskame egindako hilabete batzuk kenduta, bere bizi guztia Etxaldeberri baserrian eman du.

Zintak

ARR-076

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-20
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ARR-077

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-20
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Mikelete-etxean eskola, mikeletea maisu

- **Erref:** ARR-076/002
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:01:14. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Kanpazarko Mikelete-etxeko eskolan hasi zen ikasten, mikelete bat maisu zuela. Eskolatik egunero kalera jaisten zen, jaunartzea egiteko dotrina ikastera. Mikeleteak Bizkaiko mugatik Arabakora pasatu ziren, Arrasateko Santa Agedara.

2. Eskola urte bi kalean

- **Erref:** ARR-076/003
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara bidean amandreak laguntzen zion. Mezetara ere amandrearekin joaten zen. Gerra aurreko bi eskola ikasturteak kalean egin zituen, Santa Barbaran eta Biterin.

3. Eskolak erdaraz

- **Erref:** ARR-076/004
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Kanpazarren neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, baina kalean aparte. Aldundiak Mikelete-etxe ondoan eskola berria eraiki zuen. Mikelete maisua euskalduna zen arren, eskolak erdaraz ematen zituen.

4. Aitajauna karlisten gerratean

- **Erref:** ARR-076/005
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Aitajaunak karlisten gerratean borroka egin zuen. Dominikaren etxea Monterrongo kondearena zen, eta karlisten gerratean erre egin zen. Berreraiki zutenean, Dominikaren aitajaunak bertan artaldea jarri eta bizitzera etorri zen. Auzotar batekin ezkondu eta familia sortu zuen.</p>

Transkripzioa

- Politika asuntuen guri ez zan inor sartu. Aittajaune, hemengo, hemengo aittajaune gerra denporan, karlistako gerra denporan, gerran ibilita euen

ez dakit zenbat urtien.

- Karlista denporan, karlista gerran.

- [Gerra...lehen...] Karlistako gerria, lehengo gerran, ez oin. Nacionala, treintasesekue ez, aurrekuen. Ta zan, Garagartzan Jaiberriko semia ta zien, ez dakit zenbat esaten euen gure amak, beratzi o hamar seme-alaba. Ta anaie etxera, nausixena orduen ezkonketan [segixue] ta apelliduek eta orduko denporak. Enda semeik zaharrena Garagartzan, bere anai zaharrena, ezkondu ta ez dakit zenbat, xei urtekue edo mutikue etxien ta ez dakit zenbat urte, xei o zortzi urte edo ez dakit zenbat gerran eindde euen aittajaune etxera etorri barik ibilitta.

- Koño.

- Ta orduaintxe soltero, hau gerratien erre, hau kondiena ei zan. Hau...

- Hau zeuen etxiau?

- Hau etxiau "Conde Monterrón". Enda hau gerratien erre, bera gerra ibili zan urtien erre, enda ein deu barrixa. Barriztaute.

- Hori zan mila zortzirehun ta pikuan, ezta?

- Nik ez dakit...

- Hau erre zan gerrate karlistan?

- Bai, enda hau barrixa eindda eta hemengo erreteruek fan edo ez dakit zer pasau zan, hori ez dauket... Enda hau euen hutzik, hau etxiau, ta Garagartzan Jaiberritik soltero hona etorri ardi errebañuekin ta artzain bizimodue ardixekin lehenengoko urtie. Artzain bizimodue ta hemen, bertako alabia...

- Segi, segi berbetan. Bertako alabia...

- Hemen bertako alabia, hemen auzokue zan. Horreik eozen ez dakit, hiru aizta edo ta anaie ez dakit. Horrein anaie be euki eben baiñe ez dakit, hiru aizta edo soltera ta ez dakit zela. Enda krieda batien ta bestien. Enda haregaz gero ezkondu hemen. Soltero etorri, ezkondu ta errentan segidu euen hemen nire anai zaharrena jaixo arte. Alabie ezkondu ta ez dakit zenbat urtien hemen. Ta...

- Hori zan zure, zure...

- Aittajaune.

- Zure aittajuna.

- Alttajaune, hori in dauena.

- Hamen auzokuakin ezkondu...

- Bai, auzoko alabak.

- Ta gero zure ama geratu zan etxian.

- Bai, gero nire ama etxera ezkondu zan.

- Ia ia ia ia. Eta zuk...

- Eta nire...

5. Ama ezkondu zen etxera

- **Erref:** ARR-076/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:24. **Bukatu:** 00:16:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Dominikaren osaba bakarrak ez zuen nahi baserrian geratzerik, eta mikelete joan zen. Dominikaren ama ezkondu zen etxera. Osaba mikeletea Azkoitira ezkondu zen.

6. Gerraostean eskolarik ez

- **Erref:** ARR-076/007
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:16:04. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gerrarekin bukatu zitzaion eskola Dominikari. Ganaduak eta ardiak zituzten etxean. Aitak idiekin garraioan ere jarduten zuen.</p>

7. Nazionalak Arrasaten sartzen

- **Erref:** ARR-076/008
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Irailaren 26ko nazionalen aurrerakada ondo ikusi zuen etxetik. Kurtzetxikin bonbardaketa, eta milizianoak San Kristobal ermita ondotik ihesi zihoazen, ahal zuten moduan.</p>

Transkripzioa

- Zuek gerra denporan etxian egon ziñian edo bialdu ein ziñuein?
- Ez etxe...
- Edo [...]
- Ez etxien egon gitzan ta ez bialdu ein giñuen.
- Eta orduan zer?
- Asi ke zela esplikauko dotsut. Nire aitte zanak anaie zaharraue bizi euen hemen San Kristobal edo erminttie hor dau Kondekuen goixan ta hortxe errentan andriaz ta berak fabrikan lana eitten euen. Ta klaro, anaie hemen kalien bizi izen zien Ziorlan lehenengo haik ezkondata baiñe gero hor Kondekora ez dakit amistadie aministraziñotik edo, ein zien San Kristobalerako. Ta gero San Kristobalen, ba, andrie basarrikua auken Atxabaltakue ta famelixa haundixe beratzi, zortzi edo beratzi seme-alaba baeukenak. Enda hortxe bizi izen zien. Ta gerriek urten auenien hogeta... dieziotxuen urten euen gerriek enda hogeta seixan sartu zan Mondrauera, abanzie etorri zan. Enda milizianuek hemetik behera, ba, gerrie zer zan ez ekixen, ez euen radiorik, ez euen telebisiñorik, iñun moduen ezebez, gerria, zerbait. Ta tiruek sentidu zien hor, Atxabaltatik, Kurtzebarrittik, hor behera ta arieplanuek bonbardietan ta abanzie. Gerria. Oin telebisiñuen ikusten dittugu horreik. Enda tio, ta ba, lanera barik eta geratute, goixien, hamen aurretik, aurreko egunetan fabrikan, Zerrajeran tio lanien ta fan zala esaten euen, nik ez naz akordetan hori zela zan orduen, porke ni gaztie nitzan ta orduko gauzak, enda tio, ba, ekin zienien Kurtzebarrittik behera, ta batzuk kurrixkeka, oin pinudixe dao dana ta ez da ikusten baiñe orduen pagodixek edo hareztixek eta gaiñetikue garbi zela euen, ikusi ta,

Kurtzebarritik behera, edo Kurtzetxikittik Zerrajera ostera goittik behera ta, batzuk "ai mi madre!" batzuk erderaz ta beste batzuk euskeraz, ta kurrixkeka, ta ariplanuek botaten, ta eurak San Kristobalen, ba, holaxe aurrekaldetik, ezta? Ta ha ikusi euenien, begixek be ifiñitta eukien, ta urtietan hor San Kristobal... Nik ez nauen ezautu noiz etorri zien, ez dauket goguen ni gaztie nitzala. Lotu behixek enda koltxoiek eukenak bota, atiek itxi ta jentie gero, ba, pasue haundixe San Kristobaldik gora ta hemen be bai pasue haundixe, milizianuok eta, batzuk geratu ta esan zer etorren ta beste batzuk ikusi ta geratu ta han azpittik gora. Ikusi han Zarugaldeko panaderixia lehen han, harrobixa esaten akon lekutik bidie zeuen San Kristobalerako ta, gorako, San Kristobalerako bide zabala, burdibidia, enda handik eta han atajue, ahal euenak ahal euen lekutik gora. Ta hemetik pasue auela ta aurrera. Danak hemengo pasuen. Beste batzuk ahal euenak ahal euen lekutik. Ta gu be urtenda.

8. Gerratik babes bila

- **Erref:** ARR-076/009
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerrak gari-jotzen harrapatu zituen. San Kristobal ondoan bizi zen osaba babes bila etorri zitzaien Etxaldebarrira, bere familiarekin, zeharo larrituta. Izebak umeentzako zerbait ahaztu zuen San Kristobalen, eta haren bila joan zen. Ordurako nazionalak han zeuden, eta etxera itzultzeko arriskurik ez zegoela esan zioten. Izeba Etxaldebarrira bueltatu, eta familia biak San Kristobalera joan ziren.</p>

Transkripzioa

- Ta gu be urtenda ta [...] Klaro, zan hemen sartu ziena setienbrien hogeta xeixa ta jentiek gari jotzen ta hemen lanien ebillen.

- Gari jotzen harrapau zindduain gerriak, e?

- Gari jotzen ta hemen, ba, gu ez dakit zela eongo zan. Tio ta tia, ifiñi, lotu ganauek, burdixe ifiñi, umien trastiek eta burdixen hartu ta etorri zien honaxe. "Ene! Holakoik ez izu ein!" Ta ez dakit nunbaitten, kamaran bada be lo eingo doula, edo eingo zeuela ta sartu zien larrittute. Akabo! Itzitte munduoi etorri zien. Enda geu hemen bagaz ta ezin. Hori, ba, eguardixe, bazkalostie, bazkalburue o goxa zan, goxetik. Ta ziñon, umie txikixe baten bat, zeozer itzi in euen etxien, San Kristobalen ahaztute edo [...]. Ta "tia, fan in biha naz" ta ez fateko, ta harako goitti beheran Modrauera sartu zeinien, paradie jentiek puxkat, ha, ha [anbroillie] ta haik abioiek eta haik ametralladorak eta haik zaratak hainbeste ez. "Fan in bihe naz, ni hemetik eta hortik eta fango naz" ta fan zan tia. Ta fan zan tia ta, ba, ia San Kristobalera soldauek igota, behetik gora tropakuak.

- A bai? Nazionalak.

- Nazionalak igota. Enda San Kristobalera soldauek eta han eozenien ta ba esplikau itxurie larrittu bera ta, ba, erdi erdera erdi euskera, zelabait, baten bati esplikau utsien. Ez zien entendiduten, zerokin, nausixoi edo aurretik etorri zana horrera. Soldauen bat ekarri han inguruen euena, enda entrebistau, esplikau utsien kasuoi, enda soldauek zien, esplikau utsien kasuoi, enda tiari, sartu zan etxera, hartu bibiroia edo ez dakit zer zan,

zerbait han ta hartu ta etorri zan. Ta zela eozen hemen ta zera, esplikau otsen ta dana, ta juateko, etxera juateko. Ia ez eukiela peligrorik, ez zauela ezer, juateko esan utsien. Enda "zueik be etorri" esan oskun, "geuk ein doune, kamaran geuk ingou, lotu idixek enda zueik be etorri". Eurak ein euena geuk, geuri ein, zu. Hartu koltxoiek, hartu trastiek, atiek itxi ta aide! Ba hurrengoko egunien edo hurrengorakuen. Oso ondo hartu auen tia, osea ke entrebistau, ta oso ondo esplikau utsien edo entendidu utsien edo konprendidu utsien. Fan giñen, enda klaro, orduko denporan...

9. San Kristobalen babestuta

- **Erref:** ARR-076/010
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:25:44. **Bukatu:** 00:29:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Oiloak zakuetan sartuta eraman zituzten gurdian. Bidean soldaduak zeuden, ogi eske. Dominikak eta familiak San Kristobal santuaren ondoan egin zuten lo egun batzuetan.

10. Tiro artean itzuli ziren etxera

- **Erref:** ARR-076/011
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:29:53. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

San Kristobalen zeudela, alde bateko eta besteko soldaduen kantak entzuten zituzten gauetz. Errepublikanoen kantu bat gogoan du oraindik Dominikak, eta abestu egiten du. Euren etxera itzultzeko baimena lortu zuten; eta, bidean datozela, milizianoek tiro egin zieten. Ozta-ozta iritsi ziren etxera.

11. Babes-etxea aldatu behar

- **Erref:** ARR-076/012
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Etxean ez zeuden seguru, San Kristobalera ezin ziren itzuli; horregatik, beste etxe batera, Lorokora, joan behar izan zuten. Lorokoa berreraiki berria zegoen, aterik eta ezer gabe, eta hilabete egon ziren bertan. Han ere tirokatu egin zituzten. Tropen arrantxoek soberakinak jaten zituzten.

12. Anaia gaztea tiroz zauritua

- **Erref:** ARR-076/014
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:39:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Lorokoan egon ziren bitartean, nazionalek aita kalera eramaten zuten, guardiak egitera. Anaia gaztea, aitari ganaduekin laguntzen zebilela, tiroz zauritu zuten. Erreketeek eraman zuten kalera sendatzera. Bala aldean zuenez, mokor hezurrean sartuta, Tolosako ospitalera eraman zuten.

13. Ganaduak eta ardiak Eskoriatzara

- **Erref:** ARR-076/015
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:39:19. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Aitaren senidea zen erreketek bati esker, ardiak eta idiak Eskoriatzako Mendiola auzora eraman ahal izan zituzten. Ihesi zihoazen auzotar batzuek Etxaldebarri hutsik ikusi zuten eta sartu egin ziren, baina tiroak hasi eta Lorokora joan ziren.

14. Baserria hondatuta eta hutsik

- **Erref:** ARR-076/016
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:46:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Senidea zuten erreketek baten laguntasunarekin, Dominikaren familia azkenean kalera joan zen. Etxaldebarri baserria nahiko hondatuta geratu zen gerran, eta etxean zeuden gauza guztiak ostu zizkieten. Tropak Bilbora iritsi ziren arte, kalean egon ziren. Maiatzean etxera itzuli, eta aurreko urtean ereindako artoa batu zuten soroan. Oilo batzuk jarri, ganaduak berriro ekarri eta aurrera egin zuten.</p>

15. Aita eta amandrea kartzelara

- **Erref:** ARR-076/017
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:46:01. **Bukatu:** 00:48:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Arrasaten, Kondearen etxearen behealdean zegoen gerra-babeslekua gogoratzen du. Behin amandrea larritu egin zen eta berak bakarrik ihes egin zuen kaletik baserrira. San Kristobalen zegoela, semea joan zen bila eta biak harrapatu eta kartzelara eraman zituzten, espioitzat hartuta.

16. Familian ezbeharrak

- **Erref:** ARR-076/019
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:50:20. **Bukatu:** 00:53:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Amandrea 1938. urtean hil zen, eta aita Elma lantegian hasi eta bertan jasan zuen infartu batek eraman zuen 1939. urtean, laugarren semea jaio eta urte bira. Dominika neskame joan zen Gasteizera, baina laster etxera itzuli behar izan zuen.

17. Dominika etxera ezkondu zen

- **Erref:** ARR-076/020
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:53:26. **Bukatu:** 00:55:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Anaia zaharrenari ez zitzaion baserrria gustatzen. Ama 1950. urtean hil zen, eta lau anai-arrebak geratu ziren. 1946. urtean ezkondu zen Dominika Bergarako mikelete baten semearekin. Deban jaio eta Meatzerreka auzoan hazitakoa zen senarra. Seme bat izan zuten.

18. Jolasak eta erromeriak

- **Erref:** ARR-076/021
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Hanka-koskorka, sokasaltoka, "kuika" eta antzeko jolasetan jolasten zuten eskola denboran. Lagun gutxi elkartzen ziren jolaserako. Kanpazarko erromerietara joaten ziren. Auzoko jaiak San Valeriotan izaten ziren, urtarrilean. San Juanetan eta Santamasetan kalera joaten ziren.</p>

19. Esnea diru-iturri

- **Erref:** ARR-076/022
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:59:23. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Kalean saltzen zuten esnea zen diru-iturri nagusia. Arrautzak ere eramaten zizkieten bezeroei. Dominika ez zen plaza-andrea izan, baina bere amak eramaten omen zituen gauzak plazara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com